

# ***OKELAR anaiak***

## ***XXIX. BERTSOPAPER LEHIAKETA***

### **MAILAK**

- Gazteak: 16 urtera arte
- Helduak: 17 urtetik aurrera

### **LANAK**

Bertsoen neurria, doinua eta gaia libreak izango dira.

- Gazteak: gutxienez 2 bertso edo 4 koplak
- Helduak: gutxienez 6 bertso

### **SARIAK**

Gazteak:

- **1. saria:** txapela + 60 € + oparia
- **Mutrikuar onenaren 1. saria:** 30 € + oparia
- **Mutrikuar onenaren 2. saria:** oparia

Helduak:

- **1. saria:** txapela + 300 €
- **2. saria:** 150 €
- **Mutrikuar onenaren saria:** 2 lagunentzako afaria San Juan jatetxean

Oharrak:

- Bertso sorta batek ez du sari bat baino gehiago jasoko.
- Epaimahaiak hala iritziz gero, sariren bat eman gabe utzi daiteke.

### **BALDINTZAK**

- Bertsoak jatorrizkoak, argitaratu gabeak eta inon saritu gabeak izango dira.
- Lanak ezizenez sinatuko dira.
- Bertsoekin batera, ezizena agerian duen gutunazalaren barruan bidaliko dira egilearen izenordea, izena, helbidea, adina eta telefonoa.

- Bertso bakoitzari bere ordena zenbakia jarriko zaio. Eta bertso sorta bakoitzaren doinua ere zehaztea komeni da.
- Posta elektronikoz bidali nahi duenak bi artxibo bidaliko ditu *doc* (WORD) edo *odt* (WRITER) formatuan. Artxibo batean bertso sorta bera eta ezizena idatziko ditu eta bestean bere datu pertsonalak: ezizena, izena, helbidea, adina eta telefonoa.

### **HELBIDEA**

Lanak helbide honetara bidaliko dira:

Posta elektronikoz: *mutrikube@gmail.com*

edo

*OKELAR anaiak* bertsopaper lehiaketa

Mutrikuko Bertso Eskola

Luardo Etxea (Barrenkalea, z/g)

20830 Mutriku (Gipuzkoa / EUSKAL HERRIA)

### **EPEA**

Lanak abenduaren 2a baino lehen bidali beharko dira aipaturiko helbidera.

### **SARI BANAKETA**

Mutrikuko Santo Tomas ferian banatuko dira sariak (abenduak 21).

### **LANEN JABETZA**

Lanen jabetza antolatzaileen esku geratuko da. Antolatzaileek eskubide osoa izango dute lan guztiak argitaratzeko.

### **EPAIMAHAIA**

Antolatzaileek eratuko duten epaimahaiaren erabakiak aldaezinak izango dira.

### **ANTOLATZAILEA**

Mutrikuko Bertso Eskola

Mutrikun, 2013ko urrian

